

Musika eta jantza tradizionalaren zabalkundea bultzatu gura dabe Aikok eta BBK-k, *ondasun sozial eta kulturala* dalako, eta, horrezaz gan, tradizino hori transmitiduten eta gordeten lagundu gura dabe, musika eta jantza tradizionala aisialdiko beste jarduera batzuen pare jarrita.

Bide batez, musika eta jantza tradizionala transmitiduteko bitartekoak eta metodoak eguneratu nahi ditu Aikok, *bizirik dagoalako eta eten barik eboluzionetan dauelako, baina bere esentziak galdu barik*.

Era berean, jente guztiak ondo pasetea eta alkarren arteko lotura komunitarioa sortzea be bilatzen dau Dantzaldi Ibiltariak, Aiko Taldearen beste jarduera guztiek egiten daben lez. *Jantzeak emoten dauen gozamenaz gan, ekimenak sozializetako bokazinoa be badau, topaketarako, komunikazinarako eta personen arteko lankidetzarako guneak sortuz, azaldu dabe.*

Erantzun

Erantzuteko, izena emanda egon behar duzu. **Sartu komunitatera!**

»» [Alta eman edo pasahitza berreskuratu](#)